Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko martxoaren 8a, asteartea — 45 — Martes, a 8 de marzo de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## USURBILGO UDALA

*Igogailuak instalatzeko dirulaguntzak - 2022*

Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko otsailaren 17ko bilkuran herrian bi solairu edo gehiago izan eta nagusiki etxebizitzarako erabiltzen diren eraikinetan igogailua instalatzeko dirulaguntza oinarriak onartu zituen.

Ondorioz, oinarri orokorren eta espezifikoen testu osoa argitaratzen da eta iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta hogei (20) egun balioduneko epea ematen da interesatuek dirulaguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

*Inprimakien inguruko oharra:* Inprimakiak interesatuen eskura egongo dira udaleko web orrian, dirulaguntzen atalean.

Euskaraz: https://www.usurbil.eus/eu/diru-laguntzak.

Gazteleraz: https://www.usurbil.eus/es/subvenciones.

Erabakiaren aurkako errekurtsoak:

Erabaki hau finkoa da eta amaiera eman dio administraziobideari.

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daitezke.

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezake, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Non: Tokiko Gobernu Batzarrera jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik.

Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Non: Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

c) Berraztertze errekurtsoaren erantzunaren aurka jotzeko:

Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsoaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsoa erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziozko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

Non: Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

Usurbil, 2022ko otsailaren 17a.—Agurtzane Solaberrieta Mesa, alkatea. (1085)

## AYUNTAMIENTO DE USURBIL

*Subvenciones para la instalación ascensores - 2022*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Usurbil, en sesión celebrada el día 17 de febrero de 2022, aprobó las bases reguladoras de la subvención para la instalación de un ascensor en edificios de dos o más plantas de uso principal residencial en el municipio.

Se publican el texto integro de las bases generales y específicas y se concede un plazo de veinte (20) días hábiles a contar desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para que las personas interesadas presenten las solicitudes para la obtención de las ayudas económicas junto con toda la documentación necesaria.

*Nota sobre los impresos:* Los impresos estarán a disposición de las personas o entidades interesadas en la página web municipal, en el apartado de subvenciones.

En euskera: https://www.usurbil.eus/eu/diru-laguntzak.

En castellano: https://www.usurbil.eus/es/subvenciones.

Recursos contra el acuerdo:

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Contra el mismo podrá interponerse recurso potestativo de reposición o recurso contencioso-administrativo.

a) Antes de acudir a los tribunales, el solicitante podrá, si así lo desea, interponer recurso de reposición de conformidad con lo establecido en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Plazo: Un mes, a contar desde el día siguiente a recibir la notificación del presente acuerdo.

Dónde: Ante la Junta de Gobierno Local.

b) En otro caso, podrá interponer directamente recurso contencioso-administrativo en los términos previstos en los artículos 25 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio.

Plazo: dos meses a contar desde el día siguiente a recibir la notificación del presente acuerdo.

Dónde: ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Gipuzkoa.

c) Para recurrir la resolución del recurso de reposición:

Plazo: dos meses a contar desde el día siguiente a recibir la notificación de la resolución del recurso de reposición.

Si, por el contrario, la Administración no contestase al recurso de reposición, el interesado podrá interponer recurso contencioso-administrativo en cualquier momento a partir del día siguiente a aquel en que se produzca la acción presunta conforme a su normativa específica.

Dónde: ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Gipuzkoa.

Usurbil, a 17 de febrero de 2022.—La alcaldesa, Agurtzane Solaberrieta Mesa. (1085)

EK\CV GAO-I-2022-01085

*Norbanakoek bere etxebizitzan igogailua instalatzeko 2022. urteko dirulaguntza deialdia arautuko duten oinarriak.*

*1. artikulua. Xedea.*

Ebazpen honen xedea igogailuak instalatzeko dirulaguntzak jaso ahal izateko Usurbilgo Udalaren dirulaguntzen oinarri erregulatzaileak ezartzea, beti ere aurretik udal dirulaguntzarik kontzeptu honengatik jaso ez badute.

Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III kapituluaren I. atalak ezartzen duenari jarraiki.

Diruz lagunduko diren instalazioak 2021an amaitutakoak izango dira.

*2. artikulua. Onuradunak.*

Dirulaguntza hauen subjektu onuradunak honako hauek izan daitezke:

Erabilera nagusitzat etxebizitza erabilera duten bi solairu edo gehiagoko eraikinetan igogailua jartzeko jarduketen titularrak.

Ezin izango dute dirulaguntzarik jaso igogailua aldatzen dutenak, ezta, oro har, promotoreek beraiek edo kontratistek eraikuntza berriko eraikinetan igogailua jartzeko jarduerak.

Onuradunek beti ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluak ezartzen dituen betebehar guztiak bete beharko dituzte.

*3. artikulua. Baldintzak.*

Eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

— Etxebizitzaren jabe izatea.

— Usurbilen, igogailua jarri nahi den etxean gutxienez 6 hilabeteko antzinatasunarekin erroldatua egotea eta bertan bizitzea.

— Udalerri berean igogailua duen bigarren etxebizitzaren jabe ez izatea.

— Igogailua jartzeko obra amaitua izatea eta igogailua martxan jartzeko Usurbilgo Udalak emandako lehen erabilera baimenaren ziurtagiria izatea oinarri hauek argitaratu aurreko urtean.

*4. artikulua. Eskaerak aurkeztea eta dokumentazioa.*

Eskariak aurkeztu daitezke, pertsona fisikoek presentzialki edo telematikoki, eta pertsona juridikoek soilik telematikoki.

— Presentzialki Udaleko Erregistro Nagusian (Joxe Martin Sagardia plaza, z/g).

— Telematikoki, udalaren zerbitzu telematikoetako dirulaguntzak atalean (www.usurbil.eus).

Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluak aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Usurbilgo Udalak, Nisaeren Nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

*Bases que regulan la convocatoria de subvención para 2022 a particulares para instalación de ascensor en la vivienda.*

*Artículo 1. Objetivo.*

El objetivo de esta resolución es establecer las bases reguladoras de las subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil, para la instalación del ascensor, siempre y cuando, anteriormente no haya recibido por este concepto ayuda económica.

Todo ello en base a lo dispuesto por la sección I del capítulo III de la Ordenanza que regula las subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil.

Se subvencionarán aquellas instalaciones finalizadas en el 2021.

*Artículo 2. Personas beneficiarias.*

Las personas o entidades beneficiarias de estas subvenciones podrán ser:

Las personas titulares de las actuaciones de instalación de ascensor en inmuebles de dos o más plantas cuyo uso principal sea el de vivienda.

No podrán recibir la subvención quienes cambien el ascensor, ni promotoras/es y contratistas para la instalación de ascensores en edificios de nueva planta realizada.

Las personas beneficiarias deberán cumplir todas las obligaciones establecidas en el artículo 14 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

*Artículo 3. Requisitos.*

Los requisitos que deben cumplir los solicitantes son:

— Ser propietario/a de la vivienda.

— Estar empadronado/a y vivir en Usurbil, en la vivienda donde se quiere instalar el ascensor, como mínimo con 6 meses de antigüedad.

— No ser propietaria/o de segunda vivienda con ascensor en el mismo municipio.

— Tener finalizada la obra de instalación del ascensor y estar en posesión del certificado de la licencia municipal de la primera utilización en el año anterior a la publicación de estas bases.

*Artículo 4. Presentación de solicitudes y documentación.*

Las solicitudes podrán presentarse de forma presencial o telemática por personas físicas, y sólo telemática por personas jurídicas.

— De forma presencial, en el Registro General del Ayuntamiento (Joxe Martin Sagardia plaza, s/n).

— De forma telemática, en el apartado subvenciones de los servicios telemáticos del ayuntamiento (www.usurbil.eus).

Asimismo, también podrán presentarse en los lugares mencionados por el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

El Ayuntamiento de Usurbil mediante el Nodo de Nisae, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concrete en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración.

EK\CV GAO-I-2022-01085

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Usurbilgo Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, Nisaeren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

— Eskatzailearen edo Elkartearen ardura duen pertsonaren NANa edo agiri baliokidea.

— Zerga betebeharrak beteak dituela.

— Gizarte Segurantzaren aurreko betebeharrak egunean dituela.

— Hazienda Ordezkaritzaren Ondasun ziurtagiria.

— Pentsiodunak edo prestazio edo subsidioen jasotzaileak: ekitaldiari dagozkien ziurtagiriak.

— Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan etxebizitzan bizi diren kideek aurkeztutako aitorpenen fotokopia (eskaera hau aurkezten denean amaituta dagoen azken ekitaldian).

Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren aitorpena aurkeztu beharrik izan ez badu, honako agiriak konprobatuko dira:

— Foru Ogasunaren ziurtagiria, zergaldi horretan PFEZ aitortu beharrik ez duzula egiaztatzen duena.

— Lan-bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak egina.

Usurbilgo Udalak ofizioz egiaztapen hauek eginen ditu:

— Usurbilgo Udalarekin egunean egotearen ziurtagiria.

— Lehen aldiz erabiltzeko udal lizentzia lortu izanaren ziurtagiria.

— Eskatzailea igogailua jarriko den eraikinean helbideratuta dagoela egiaztatzea.

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

Dirulaguntza eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

— Eskabide orria (I eranskina).

— Beste erakunde batean dirulaguntza eskatu izanaren agiria.

— Etxebizitzako titulartasuna edo/eta titularrarekin harremana egiaztatzen duen agiria, eskatzaileak titulartasuna ez duenean.

— Titularrak edo eskatzaileak ordaindu behar duen kopuruaren agiria (komunitate akta).

Deialdira aurkezteko unean eskatzaileak ez du zorrik izango Usurbilgo udalarekin, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaztagiririk aurkeztu behar. Bestalde, dirulaguntza ordaintzeko unean Udalarekin zorra izanez gero, ez da dirulaguntzarik emango.

*5. artikulua. Epeak.*

Aintzat hartuko diren eskaerak: 2021ean igogailua martxan jartzeko Usurbilgo Udalak emandako obra amaiera ziurtagiria jaso dutenak izango dira.

Eskariak, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hogei (20) egun baliodunеko epean aurkeztu beharko dira, biharamunetik kontatzen hasita.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

En este sentido, el Ayuntamiento de Usurbil va a verificar los siguientes requisitos para acceder a la subvención de esta convocatoria desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, Nisae:

— DNI o documento equivalente de la persona solicitante o responsable de la entidad.

— Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias.

— Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones frente a la Seguridad Social.

— Certificado de Bienes de la Delegación de Hacienda.

— Pensionistas o perceptores de prestación o subsidio: Certificado de las mismas, correspondientes de dicho ejercicio.

— Declaración del Impuesto de la Renta de las Personas Físicas de las personas que vivan en el domicilio (último ejercicio vencido en el momento de presentación de la presente solicitud).

Para quienes estén exentos de la obligación de declarar por el Impuesto de la Renta de las Personas Físicas, se comprobarán los siguientes documentos:

— Certificado de la Hacienda Foral acreditativa de la no obligatoriedad de presentación de la declaración de IRPF en dicho ejercicio.

— Certificado de vida laboral expedido por la Tesorería General de la Seguridad Social.

El Ayuntamiento de Usurbil realizará de oficio la de los siguientes trámites:

— Certificación de estar al corriente con el Ayuntamiento de Usurbil.

— Certificación de haber obtenido la correspondiente licencia municipal de primera utilización.

— Comprobación de la domiciliación del solicitante en el edificio donde se vaya a instalar el ascensor.

En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

Para realizar la solicitud de subvención, deberá presentarse la siguiente documentación:

— Instancia de solicitud (anexo I).

— Justificante de haber solicitado subvención en otra entidad.

— Titularidad de la vivienda y/o documento que acredite la relación con la persona titular, cuando esta no sea la solicitante.

— Documento que acredite la cantidad que la persona titular o solicitante tiene que abonar (acta comunidad).

La persona solicitante en el momento de presentar la solicitud no deberá tener deudas con el Ayuntamiento de Usurbil, a pesar de que no deberá presentar ninguna justificación al respecto. En aquellos casos en los que haya deudas para con el Ayuntamiento, no se concederá ninguna subvención.

*Artículo 5. Plazos.*

Las solicitudes que se tendrán en cuenta serán: Aquellas cuya obra haya finalizado en 2021 y el Ayuntamiento de Usurbil haya emitido el documento que así lo acredite.

Las solicitudes deberán presentarse en un plazo de veinte (20) días contados a partir del día siguiente a la publicación de esta convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2022-01085

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar (10) eguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 artikuluaren arabera, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

*6. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa.*

Eskaera bakoitzeko dirulaguntza gehienez 1.000 eurokoa izango da.

Dirulaguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidan azaltzen den diru izendapena.

Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.8000.780.231.03.01.2022.

Aurrekontuan izendatutako diru kopurua nahikoa ez bada dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, banaketa proportzionala egingo da baldintzak betetzen dituzten eskabide guztien artean.

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, dirulaguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharrizanen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Usurbilgo Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

*7. artikulua. Prozedura.*

Dagokion arloko teknikariak dirulaguntza eskariak ebaluatu ondoren, txostena egin eta dagokion Batzordera eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman dezan. Ondoren, dirulaguntzen Batzorde Orokorrak ebazpen proposamena egingo du. Jarraian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da ebazpen proposamenaren inguruko iragarkia eta interesatuak hamar (10) eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita. Azkenik, Tokiko Gobernu Batzarrak emango du dirulaguntzei buruzko behin betiko ebazpena gehienez ere, hiru (3) hilabeteko epean eskaria aurkeztu izan den egunetik zenbatuta. Behin betiko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Aipatutako epea igaro ondoren ebazpenik eman ezean, ulertu behar da eskaria gaitzetsi egin dela, gerora egin daitekeen ebazpenaren kaltetan izan gabe.

Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

*8. artikulua. Dirulaguntzaren Batzorde Orokorra.*

Dirulaguntzen Batzorde Orokorra modu honetara osatuko da:

— Udalean dirulaguntzak banatzen dituen Batzorde bakoitzeko lehendakaria eta teknikaria.

— Alkatea.

— Udal idazkaria.

— Udal kontuhartzailea.

Dirulaguntza Batzorde Orokorraren funtzioak, besteak beste, hauek izango dira:

— Udal dirulaguntzak banatzeko irizpideak bateratzea.

— Dirulaguntzen legezkotasuna bermatzea.

Si la documentación presentada es incompleta o si no cumpliese con alguna de las condiciones estipuladas en las bases, la persona interesada dispondrá de un plazo de diez (10) días para subsanar los errores o para incorporar la documentación correspondiente. Y se le indicará que, en base a los términos previstos en el art. 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21.

*Artículo 6. Cuantía de la subvención.*

Por cada solicitud, la subvención será como máximo de 1.000 euros.

La cuantía destinada a la subvención no superará las cantidades especificadas en la partida que se indica a continuación.

El gasto irá a cargo de la presente partida presupuestaria: 1.8000.780.231.03.01.2022.

Si la dotación presupuestaria consignada no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a subvención, se procederá al prorrateo proporcional entre las solicitudes que cumplen todos los requisitos.

Las subvenciones reconocidas por la presente Normativa serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por Organismos Públicos o Privados para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobre financiación, procediendo en tal caso la reducción de la subvención a conceder. En caso de que con posterioridad se generase una sobre financiación y concurriese más de una obligación de reintegro por esa causa, la persona o entidad beneficiaria reintegrará la cantidad proporcional que le corresponda en función de la aportación sobre el total que haya efectuado el Ayuntamiento de Usurbil.

*Artículo 7. Procedimiento.*

El personal técnico del área evaluará las solicitudes de subvención y se encargará de realizar un informe que se trasladará a la Comisión correspondiente. Una vez analizado el informe, se hará una valoración, tras la cual, la Comisión General de Subvenciones dictará una propuesta de resolución. A continuación se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el anuncio relativo a la propuesta de resolución y la persona interesada tendrá un plazo de diez (10) días a contar desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para presentar las alegaciones oportunas. Finalmente, en Junta de Gobierno Local se dictará la resolución definitiva relativa a dichas subvenciones, en un plazo máximo de tres (3) meses a partir de la fecha en que se ha presentado la solicitud. La resolución definitiva se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Si transcurrido dicho plazo no se hubiese producido ninguna resolución, debe entenderse que la solicitud ha sido rechazada, sin perjuicio de la resolución que pudiera sobrevenirse.

En el tablón de anuncios del ayuntamiento y en la página web www.usurbil.eus también se dará cuenta de la propuesta provisional y de la resolución definitiva.

*Artículo 8. Comisión General de Subvenciones.*

La Comisión General de Subvenciones está compuesta por:

— El o la presidenta y un técnico o técnica por cada Comisión que distribuye las subvenciones en el ayuntamiento.

— El o la Alcaldesa.

— El o la secretaria municipal.

— El o la Interventora municipal.

Las funciones de la Comisión General de Subvenciones serán, entre otras, las siguientes:

— Unificar los criterios para el reparto de subvenciones municipales.

— Garantizar la legalidad de las subvenciones.

EK\CV GAO-I-2022-01085

— Dirulaguntza bikoizketak ekiditea.

*9. artikulua. Baloratzeko irizpideak.*

Dirulaguntzak ematerakoan, ondoko irizpideak izango dira kontuan:

— Eskatzailea eta berarekin bizi diren pertsona guztien diru sarrerak kontuan hartuko dira, eta guztien diru sarreren batura hartuko da diru sarreratzat.

— Eskatzailea eta berarekin bizi diren pertsona guztien ondasunak (higigarriak eta higiezinak) hartuko dira kontutan.

— Ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko diru sarrerak honela kalkulatuko dira:

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) aitortu dutenen kasuan, oinarri zergagarri orokorra eta aurrezkiarena, lan etekinen hobaria eta errenta salbuetsiak gehituta.

2. Errenta aitorpenik aurkezteko obligaziorik ez dutenen kasuan (agiri bidez egiaztatuta), lan errendimenduetatik edo langabezia sarietatik etorritako diru sarrera gordinen % 95, eta pentsioen eta langabezia subsidioen % 100.

3. Pentsio konpentsagarriak benetan ordaintzen direla agiri bidez frogatuz gero, kontuan hartuko zaizkio bai jasotzen duen ezkontide ohiari sarrera bezala, bai ordaintzen duenari kenkari bezala.

— Oinarrietan jasotzen diren baldintzak bete eta dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko hurrengo taula hartuko da kontuan.

— Evitar la duplicidad de las subvenciones.

*Artículo 9. Criterios de valoración.*

Al conceder las subvenciones, se tendrán en cuenta los siguientes criterios:

— Se tendrán en cuenta los ingresos de la persona solicitante y de todas las personas que convivan con ella, y se entenderá como ingresos la suma de todas ellas.

— Se tendrán en cuenta los bienes (muebles e inmuebles) de la persona solicitante y de todas las personas que convivan con ella.

— Los ingresos económicos para determinar la capacidad económica se calcularán como sigue:

1. Para las personas que hayan presentado la declaración de renta (IRPF) se tomarán en cuenta la base imponible general y de ahorro, más la bonificación aplicada a los rendimientos del trabajo y las posibles rentas exentas.

2. Si no existe obligación de presentar la declaración de renta (exención justificada documentalmente), se computarán el 95 % de los ingresos brutos en caso de rendimientos de trabajo o prestaciones de desempleo, y el 100 % de pensiones y subsidios de desempleo.

3. Si se acredita documentalmente el abono efectivo de pensiones compensatorias, serán tenidas en cuenta tanto como ingreso para el excónyuge que la perciba, como minoración para el obligado a abonarla.

— Es condición indispensable cumplir los requisitos que se recogen en las bases, y se tendrá en cuenta la siguiente tabla para calcular la subvención que corresponde.

*LAGUNTZAREN KALKULUA DIRU SARREREN ARABERA EGITEKO TAULA*

| *Sarreren goi muga* | *LAGUNTZAREN PORTZENTAJEA* | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Lanbide arteko gutxieneko soldata** | **Lagun bakarra** | **2 lagun** | **3 lagun** | **4 lagun** | **5 lagun** |
| %150 | %100 | | | | |
| %170 | %90 | | | | |
| %190 | %80 | | | | |
| %210 | %70 | %100 | | | |
| %230 | %60 | %90 | | | |
| %250 | %50 | %80 | | | |
| %270 | %40 | %70 | %100 | | |
| %290 | %30 | %60 | %90 | | |
| %310 | %20 | %50 | %80 | | |
| %330 | %10 | %40 | %70 | %100 | |
| %350 | %0 | %30 | %60 | %90 | |
| %370 | | %20 | %50 | %80 | |
| %390 | | %10 | %40 | %70 | %100 |
| %410 | | %0 | %30 | %60 | %90 |
| %430 | | | %20 | %50 | %80 |
| %450 | | | %10 | %40 | %70 |
| %470 | | | %0 | %30 | %60 |
| %490 | | | | %20 | %50 |
| %510 | | | | %10 | %40 |
| %530 | | | | %0 | %30 |
| %550 | | | | | %20 |
| %570 | | | | | %10 |
| %590 | | | | | %0 |

EK\CV GAO-I-2022-01085

*TABLA PARA EL CÁLCULO DE LA AYUDA CORRESPONDIENTE SEGÚN INGRESOS.*

| *Ingresos año HASTA* | *PORCENTAJE DE AYUDA* | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **SMI** | **1 persona** | **2 personas** | **3 personas** | **4 personas** | **5 personas** |
| 150% | 100% | | | | |
| 170% | 90% | | | | |
| 190% | 80% | | | | |
| 210% | 70% | 100% | | | |
| 230% | 60% | 90% | | | |
| 250% | 50% | 80% | | | |
| 270% | 40% | 70% | 100% | | |
| 290% | 30% | 60% | 90% | | |
| 310% | 20% | 50% | 80% | | |
| 330% | 10% | 40% | 70% | 100% | |
| 350% | 0% | 30% | 60% | 90% | |
| 370% | | 20% | 50% | 80% | |
| 390% | | 10% | 40% | 70% | 100% |
| 410% | | 0% | 30% | 60% | 90% |
| 430% | | | 20% | 50% | 80% |
| 450% | | | 10% | 40% | 70% |
| 470% | | | 0% | 30% | 60% |
| 490% | | | | 20% | 50% |
| 510% | | | | 10% | 40% |
| 530% | | | | 0% | 30% |
| 550% | | | | | 20% |
| 570% | | | | | 10% |
| 590% | | | | | 0% |

* 5 lagunetik gora erreferentzi bera erabiliz kalkulatuko litzateke.

*10. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea.*

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren % 100a ordainduko da.

*11. artikulua. Betebeharrak.*

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituzten titular onuradunek, Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikuluak ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte. Besteak beste, ondorengo hauek:

a) Dirulaguntza eman den xederako erabiltzea.

b) Jarduera egiten ari dela frogatzea. Orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.

c) Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.

d) Dirulaguntza eskaini duen Usurbilgo Udalak egin beharreko egiaztatzejarduketei trabarik ez jartzea, ez eta esku-hartzailetzari dagozkion finantzakontroleko jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.

e) Beste administrazio edo erakunde batzuetatik (publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik) helburu berbererako beste dirulaguntzarik jasotzen bada, dirulaguntza eskaini duen organoari horren berri ematea.

* A partir de 5 personas la referencia utilizada para el cálculo será la misma.

*Artículo 10. Pago de la subvención.*

Inmediatamente a la notificación de la concesión de la subvención, se procederá a tramitar el pago del 100 % de la ayuda.

*Artículo 11. Obligaciones.*

Las personas beneficiarias que hayan recibido subvenciones de esta convocatoria, deberán cumplir las obligaciones que establece el artículo 6 de la Ordenanza que regula las subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil. Entre otras, las siguientes:

a) Destinar la cuantía de la subvención al objeto de la subvención.

b) Acreditar la realización de la actividad y, en definitiva, el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinan la concesión de la ayuda.

c) Obtener todos los permisos para el cumplimiento de la actividad objeto de subvención, y cumplir lo establecido en los mismos.

d) El sometimiento a las actuaciones de comprobación a efectuar por el Ayuntamiento de Usurbil y a las de control financiero que corresponden a la Intervención y a las previstas en la legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas u otros órganos que tengan atribuidas dicha competencia.

e) En caso de percibir alguna otra subvención, para el mismo objetivo, de otras administraciones o instituciones (sean públicas o privadas, estatales o internacionales), informar al órgano ofertante de la subvención.

EK\CV GAO-I-2022-01085

f) Dirulaguntza eskaintzeko garaian kontuan hartutako atalen batean aldaketarik gertatuz gero (objektiboa nahiz subjektiboa izan), dirulaguntza eskaini duen organoa aldaketa horren jakinaren gainean jartzea eta beronen onespena izatea.

g) Indarrean dauden xedapenen arabera Gizarte Segurantzaren eta Ogasun Publikoaren aurrean dituzten betebeharrak ezagutzea, Usurbilgo Udalak ezarritakoak barne.

Horretarako, eskatzaileek idatzizko aitorpenean adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera dagoela edo Ogasun Arloko betebeharrak betetzen dituela.

Bestalde, udal betebeharrei dagokienez, udalak berak ofizioz, dagozkion ziurtagiriak eskura ditzake.

*12. artikulua. Araudi osagarria.*

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da:

— Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza.

— Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.

— Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

f) Comunicar a la entidad concedente las modificaciones, objetivas o subjetivas, que se practiquen en cualquiera de los aspectos que han sido relevantes para la concesión de la subvención, y obtener su aprobación.

g) Tener conocimiento de sus obligaciones tributarias y de la Seguridad Social, según lo establecido en las disposiciones vigentes, en las que se incluyen las establecidas por el Ayuntamiento de Usurbil.

Para ello, las personas solicitantes manifestarán en la declaración escrita hallarse al corriente de sus obligaciones para con la Seguridad Social o que cumplen con aquellas otras obligaciones referidas al ámbito de la Hacienda.

Por otra parte, con relación a las obligaciones del Ayuntamiento, el mismo, de oficio, podrá recabar los certificados correspondientes.

*Artículo 12. Normativa complementaria.*

En lo no dispuesto en esta convocatoria se estará a la regulación contenida en:

— La Ordenanza reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil.

— La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

— El Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

EK\CV GAO-I-2022-01085